

39.  
Otsaila 2017


# INGURUMEN BULETINA



**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA**

# Aurkibidea



1.-Tenperatura globalak erregistroak hautsi zituen 2016an...	3
2.-Artikoaren desizoztea.....	4
3.-Berriztu!.....	6
4.Garoña eta Segurtasun(eza)Nuklearrerako Kontseilua-.....	7

## 1.- Tenperatura globalak erregistroak hautsi zituen 2016an, 2015ean bezala

Munduko Meteorologia Erakundeak 2016. urtea erregistroak hasi zirenetik urterik beroena izan dela baieztatu du. Tenperatura markak hiru urtez jarraian hautsi dira. (<https://public.wmo.int/en/media/press-release/wmo-confirms-2016-hottest-year-record-about-11%C2%B0c-above-pre-industrial-era>). Zenbakitan esatekotan, 2016. urtean munduko tenperaturak industriaurreko aroko maila 1,1°C gainditu zuela esan dezakegu, eta 2015 urtearekin alderatuta 0,07 gradu altuagoak izan ziren. Petteri Taalas erakunde honen idazkari nagusiaren hitzetan: "Arau bihurtuko den aparteko bero epe luze baten lekukoak izan gara". Gainera, 2016ko uztail eta abuztua komunitate zientifikoak inoiz ikusitako hilabeterik beroenak izan dira.

Orain arte egundo iritsi gabeko tenperaturak ezagutu ditugu: Hego Afrikako Pretorian 42,7°; Tailandian 44,6°; Indiako Phalodin, 51°; Irakeko Basoran, 53,9°,, edota Mitribahko, Kuwaiteko Mitribahen 54°.

Datuek erakusten dutenez, gisakiaren aktibitatearen eraginez erabateko aldaketa eragiten ari da, izan ere, erregistratutako berotzearen erantzule nagusia berotegi efektuko gasen isurketa da. Zentzu horretan 2016.a errekor urte bat ere izan da, giza ekintzak eragindako epe luzerako klima aldaketaren adierazleek ere errekor mailak lortu baitituzte. Horien artean karbono dioxidoa eta metanoaren kontzentrazioa dago.

Ondorioak:

Tenperaturen igoera beste fenomenoek markarekin lotuta dago: Ozeano Artikoan gertatzen ari den izotzaren murrizketa (munduko batez bestekoa baino bi aldiz azkarrago berotzen ari da), baso-suteak, koral-itsaslabarren hondamendiarekin eta beste fenomenoekin: zikloiak, marea-mugimenduak eta lehorte larriak, Munduko Meteorologia Erakundearen neurketen arabera.

Giza ondorioen artean, larrienak Haitin gertatutakoak dira (zikloiak eragindako 540 hildako), eta Txinako eta Sri Lankako uholdeak (500tik gora hildako). Honi gehitu behar dizkiogu zikloi eta tornadoek eragindako zaurituak eta lekualdatzera behartuta gertatu diren 14,7 miloi pertsonak, batez ere Asiako hego-ekialdean. Gainera, munduko eskualde guztietan muturreko eguraldiak eragindako galera sozio-ekonomikoak ere badaude.


Aldaketa klimatikoaren neurketak hobetzeko neurri berria

Munduko Meteorologia Erakundeak bere txostenean, tenperaturen erregistroa hemendik aurrera astez aste egitea proposatu du, klima aldaketaren eragina zehatzago neurtzeko.

## 2.- Artikoaren desizoztea

Azken hamarkadan ikusi ahal izan dugunez, Artikoaren inguruan dagoen izotz kapa zeharo murriztu da. Gertaera hau nabarmen ikusten da Amerikako Espazioko Agentziak (NASA) argitaratu duen bideo honetan: <https://www.nasa.gov/feature/goddard/2016/arctic-sea-ice-is-losing-its-bulwark-against-warming-summers/>. Murrizketa guztiz kezkarri hau kopurutan jartze aldera, esan dezagun 70etako hamarkadan izotzak batez beste 8 milioi kilometro koadro hartzen zituela irailean (atzerakada handieneko unea). Gaur egun, ordea, 3-4 milioi kilometro koadrorra murriztu da.

Halere, are larriagoa da beste fenomeno bat: NASAk egiaztatu du udako tenperatura igoeraren ondorioz antzinako izotza desagertzen ari dela, izotz hori berria baino lodiagoa eta iraunkorragoa izan arren. Horrek izotza oso egoera ahulean uzten du, bai ozeanoaren, bai atmosferaren berotzearen ondorioz. Gainera, geroago aipatuko dugun legez, biztanleen eta faunaren aurkako ondorioak ere badakartza.



Munduko gune sakratutzat hartu beharko genukeen ingurua egoera oso larria pairatzen ari da, eta batzuk egoera hori negozioa egiteko aprobeztatzen ari dira. Ez alferrik, izotzaren galera horrek petroleo eta gas-prospekzioak errazten ditu, planetako lurralderik babesgabeena delarik. Prozesu hau sorgin-gurpil bat da, berotegi efektuak izotz gutxiago dakarrelako, eta izotz gutxiago egoteak, petroleoaren bilaketa...

Egoera ikusirik, Greenpeace-k "Salba dezagun Artikoa" kanpaina antolatu zuen (<https://secured.greenpeace.org/espana/es/Que-puedes-hacer-tu/Ser-ciberactivista/el-artico-se-derrite/>), eta horri esker inoiz ez bezalako akordiora iritsi ziren AEBetako eta Kanadako presidentek, Barack Obama Justin Trudeau, lurralde artikoan gas eta petroleo-prospekzioak debekatzeko, bi estatu horietako eremuan. Gaur egungo kezka da Trump presidente estatubatuarrek zer egingo ote duen akordio horrekin?

Hainbesteko garrantzia duen lurraldearen egoera aztertuta, goazen Artikoaren urtzeak eragiten dituen ondorio anitzetara; honek agerian utziko du Artikoa babestea zergatik den hain garrantzitsua.

-Klima-aldaketa- Ozeano Artikoak garrantzi handia du planetaren tenperatura orekatu eta klima aldaketari aurre egiterakoan: Artikoak planetaren tenperaturak hozten ditu eguzkiaren argia islatuz. Berotegi globalaren ondorioz, mundua berotzen da, izotza urtzen da, eta horregatik, ozeanoek xurgatzen dute eguzkiaren argia, ondorioz, urtea eta berotegi efektua areagotuaz. Prozesu hori dela medio ulertzen dugu zergatik esaten duten zientzilari askok Artikoaren urtea aldaketa klimatikoaren eragile eta ondorio dela.

- Biztanleria: Artikoarentzako mehatxua bertan bizi diren 4 miloi pertsonentzako mehatxua ere bada. Izan ere, komunitate hauek inguruaren menpe baitaude, mendetan zehar elikatzeko eta kudeatu dituzten baliabideak ateratzeko. 40 etnia eta kultur talde desberdin bizi dira han. Artikoa aldatuz gero, antzaldatu egingo da ere haien ondarea, hizkuntzak, kultura eta bizimodua.

- Fauna: Artikoan bizi diren animaliak ezin dira beste inon aurkitu, eta guztiek izotza behar dute bizirauteko.



### 3.-Berriztu!

Fracking Ez plataforma arrakastatsua hitza hartuz, Armentia 2 izeneko gasa erauzteko planak geldiarazteko gizarte-mugimendu bat sortu da: BERRIZTU! Bestalde, beharrezkoak diren eztabaida sozialerako elementuak sartzeari ere dauka helburu.

Mugimendu honek honako erakundeen babesak dauka: ELA, LAB ESK, Steilas, UAGA, EH Bildu, Podemos, Equo, Ezker Anitza, ACOA-AKE, Zero Zabor, Eguzki, Fracking Ez, Ekologistak Martxan, Gure Energia, Naturarekin Bat, Hala Bedi Irratia, Zapateneo, Martxoak 3, Arkillos 10, Gaia, Yokerendan eta Desazkundera.

Armentia 2.aren putzuaren tramitazioan, ez omen da fracking teknika erabiliko; hala errepikatu dute; baina ez hainbeste ingurumen

arazoengatik, hori erabiltzeak frakaso politiko bat erakarriko lukeelako baizik. Kontua da Armentia 2.a ohiko zundaketatzat saldu zaigun arren, oraindik ere arazoz beteriko kontua dela. Lehenik eta behin, Arabako Aldundiko teknikarien hitzetan, Euskal Herriko akuifero nagusirako (Subijana) arrisku bat dakarrelako. Eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzaren helburua delako eskala handiko hobi bat sortzea delako, nahiz eta horrekin putzuak ugaitu.

Beste aldetik, proiektu honetan arazo legalak daude, adibidez, era simplean bideratu izana, horrela informazio publikoa eta alegazioen faseak saihesteko, horrek dakarren gardentasun ezarekin.

Eusko Jaurlaritzak aukeratzen duen energia eredua, erauzketaren aldekoa da.

Gasteizko Udalaren txosten teknikoak dioenez:

“Maila guztietan aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan urratsak ematen ari direnean, gutxienez kontraesankorra dirudi berriro ere erregai fosilak bilatzen hastea, baliabideak eta ahaleginak energia berriztagarrietara eta energia eraginkortasunera zuzendu ordez”.



#### 4.-GAROÑA eta "Segurtasun" Nuklearreko Kontseilua

Egungo egoera: Nuclenorrek (erdibana Iberdrola eta Endesarena) bermeak nahi ditu zentrala 60 urte bete arte irekita mantendu dadin, bere inbertsioak errentagarriak izango direla ziurtatzeko. Zeharka, honek esan nahi du beste zentralak ere beste hainbeste bizitzea eskatzen ari direla; beraz, ez da gehiegi esatea uneotan borroka estrategiko bat erabakitzen ari dela.

2014an Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak (CSN) egin zituen txostenetan Garoña berriz irekitzeko aukera hobesten zen, betiere hainbat inbertsio egiten baziren. Joan

den otsailaren 8an, aurreko irizpidearekin bat, osterera zentrala berrirekitzea onetsi zuen. Baina harrigarria ez zen izan erabaki hau, baizik onartzea inbertsioak -zeinak 2014an zentrala irekitzeko baldintza baitziren- ez zirela egin, eta halere erabakia ez zela aldatu.

Honen arrazoia funtsean da CSNren osoko bilkura PPko 3 eta PSOEko 2 goi-kargu ohiek osatzen dutela. PSOEko batek ezezko botoa eman zuen, baina halere kiratsa dario politika eta enpresen arteko ate birakarien praktikari.

Beraz, azken hitza Energia

Ministerioak eta konpainia elektrikoek dute; hauek erabakia hartzeko erabiliko duten neurria, berriz, inbertsioak errentagarriak izatea ala ez.

Horregatik, argi geratu da gure segurtasun eta osasuna irizpide ustel eta merkantilen menpe dagoela.

Zer datorkigu gainera? Garoña berrirekitzeak izango lituzkeen ondorio anitzak:

Santa María de Garoña zentral nuklearrak 46 urte bete ditu, eta Fukushimako zentralaren bikia da.

Espainiar estatuan lehenengo aldiz emango litzaioke zentral nuklear bati 60 urtetaraino lan egiteko.

Gure jarrera honekiko argia da: Betidanik agertu gara itxieraren alde, eta orain ez dago inolako arrazoirik berriz irekitzeko, batik bat kasu konkretu honen atzean konpainia elektriko handiek beste zerbait bilatzen dutelako, zentral nuklearren bizi erabilgarria luzatzea.



Ikuspuntu ekonomikotik berrirekitzea ez da ezinbestekoa. Itxi zenetik lau urte igaro dira, beraz, agerikoa da energia ekoizteko ez dela beharrezkoa. Aitzitik, egoera kontrakoa da: energia produkzio ahalmena handiegia da uneotan.

Ingurumenaren ikuspuntutik, berriz, egun klima- eta baliabide-krisi bat pairatzen ari garelarik, inbertsio pribatu zein publikoa beste energia-eredu baterantz eramango gaituen trantsiziora bideratu behar da, energia berriztagarri, garbi eta iraunkorretara, eta aberastasun jasagarria sortzera, ez nuklearra bezain energia garesti, arriskutsu eta kontaminatzaile.

Bestalde, gatazka ekologiko hau adostasun sozialik handienarekin itxi behar da. Kasu honetan Garoña behin betiko ixtearen alde dagoen gehiengo sozial, sindikal, instituzional eta politikoa izugarria da; beraz, hori litzateke gatazkari irtenbide demokratikoa emateko modu bakarra.

Bestalde, zentral nuklear hau benetan segurua ote den ez daukagu berme nahikorik. CIEMAT erakundeko Francisco Castejoneren arabera, "Garoña irekita mantentzea erokeria da". Batez ere CSNk eskatzen dituen neurriak nahikoak ez direlako, ez baitituzte konponduko bere akatsik larrienak: Zirkuitu primarioaren korrosioa eta ontziak dituen arazoak. Zentralen bizi erabilgarria luzatzeko planek

soilik barneko presio eta temperaturari eragiten diete. Haatik, horrek ez ditu aipatutako gabeziak onbideratzen. Planek ez dute ezer egingo korrosioaren aurka.

Segurtasunari dagokionez, kezkatzekoa den beste kontu bat ere bada: zentralaren kokapena. Garoña gaur ez lukete egungo lekuan eraikiko. Gorabehera handiak dituen Ebro ibaiaren meandro batean dago, urtegi handi bat ur gora eta beste txiki bat ur behera dituela. Zoritxarrez, onek gogora dakarkigu Fukushimako ezbeharra, zentrala urpean utzi zuen itsasikara batek eragina. Azkenik, Fukushimak eta Garoñak badute beste antzekotasun bat ere:

Japoniako gobernuaren txosten ofizialak ebatzi zuenez, operadoreak, arautzaileak eta gobernuak elkar hartuta jokatu zuten, eta ondorioz hiruren errua maila berekoa izan zen. Esan liteke ere elkar hartuta jokatzen ari direla Nuclenor (operadorea), CSN (arautzailea) eta Madrilgo gobernua. Hauxe da orain pairatzen ari garen egoera, PPk CSN bere gobernuaren luzapen huts bilakatu baitu.

Ondorioz, argi dago enpresa pribatuak gobernuaren erabakietan muturra sartu duela. Eta azkenean Garoña berrirekitzeko edo itxita uzteko erabakia politikoa izango dela, edota are okerrago, ekonomikoa. Horregatik, ELA dei egiten die bere afiliatuei zentral nuklearra berriz

irekitzearen aurkako manifestazioetan parte hartzera. Bestalde, ELA euskal erakundeei galdegiten die argi utz dezatela Iberdrolari eta bere zuzendaritzari orain

arte bezalako pribilegiozko tratua emango ote dieten. Koherentzia apur bat balute, bederen, Ibedrola premiatu beharko lukete Garoña ez irekitzera.



